

## Prestigen 'marea beltza' eta Bizkaiko golkoari buruzko hitzaldia Biterin

■ Ekitaldian parte hartuko dutenak dira Esteban Olaizola (Arrantzaleen Kofradiako lehendakaria), Jose Ramon de Miguel (Ekologistak Martxan) eta Alberto Frias (Eguzki) ■ Hitzaldia bihar, Biterin, 19:30etan.

PRESTIGE petroleroak sortutako marea beltzak gure itsasoan zer eragin izan duen eta Bizkaiko Golkoa zer egoeratan dagoen ezagutzeko hitzaldia izango da bihar Biteri kultur etxean.

Hitzaldia Udalak antolatuta du eta krisi guztia oso gertutik bizi izan duten protagonistak etorriko dira Hernanira: Esteban Olaizola Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiako lehendakaria, Jose Ramon de Miguel Ekologistak Martxan taldeko ordezkaria eta Alberto Frias Eguzki talde ekologistako kidea. Hitzaldia arratsaldeko 19:30etan izango da, bihar.



Arrantzaleen lanagatik azken egun hauetan hondartzetara fuel gutxiago etorri da. (Arg. Argia)

Ia 12.000 tonelada fuel bildu Marea beltza gure kostara sartu denetik euskal arrantzaleek ia 12.000 tonelada galipota bildu dituzte itsasoan, eta hondartzetara ere galipota pila haundiak iritsi dira. Esteban Olaizolak egunotan esan du arrantzaleen lana nabarmentzeko dela, eta azpimarratu du azken aste honetan arrantzaleek itsasoan

egindako lanagatik izan ez balitz, orain gure kosta guztia galipotaz josia egongo zela. Fuel asko bildu bada ere, oraindik ez dute dena garbitzerik lortu.

Ramon de Miguel ekologistak atzo adierazi zuen kala eta akantilatutak gehienak fuelak hartuta daudela eta erakunde publikoei eskatu die hori ere garbitzen hasteko,



Esteban Olaizola. (Arg. Argia)

inguru guztia kutsatzen duelako. Bestalde, Prestigek sortutako marea beltza, ondorio ekologikoez gain, beste maila bateko ondorioak ere uzteko zorian dago. Antxo eta berdel garaia gainean da eta arrantzaleek oraindik ez dakite zer gertatuko den. Olaizolak esana du, fuela erabatu garbitu artean ezin dituztela sareak bota. □

### ■ WATERPOLOA

## Derby polita Hernanin

ASTEBURU honetan Hernani A eta Hernani B-k elkarren kontra jokatu dute, Gipuzkoako Ligan. Derby polita izan zen, eta Hernani Bk hasieran behintzat oso ondo eutsi zion aurreneko taldeari. Azkenean, aurreneko taldeak gauzak bere lekuan jarri zituen eta 10-2 irabazi zuen partidua. Hala ere, aurreneko zatian 1-0 bakarrak aurreratu zen Hernani A, eta bigarrenetan 1-1 bukatu zuten. Hirugarrenetik aurrera Hernani A-ren kontraerasoak etorri ziren eta hor erabaki zen partidua. Hernani A nagusi, baina, Hernani Bk oso joko ona erakutsi zuen eta pixkanaka geroz eta maila hobea hartzen ari da taldea. □

## Bautista Barandalla preso askatzea eskatzeko manifestazioa bihar

BAUTISTA Barandalla preso etxarriarra askatzea eskatzeko mobilizazio ugari ari dira egiten. Barandalla egoera larrian dago espetxean eta ospitaletik espetxera eta espetxetik ospitalera darabilkite. Zenbait gazte erakundeek egoera hau salatu dute eta Barandallak etxean beharko lukeela diote. Bihar, ostirala, manifestazioa egingo da Hernanin: 12:30etan Plazan. Arratsaldeko 20:00etan, berriz, asanblea egingo da plazan. Gazte erakundeek dei egiten dute mobilizazioetan parte hartzeko. □

## Emakume Zentroak asanblea gaur

GURE Etxola Emakume Zentroak urteko Asanblea egingo du gaur, arratsaldeko 17:00etan hasita. Gai-ordenari dagokionez, puntu bat lehendakari eta junta aldaketa izango da. Horretaz gain, urteko balantzeak eta lokalean egindako meJORAK ere tratatuko dira. □

## Jasone Osoro idazlea Udal Euskaltegian

JASONE Osoro idazle bizkaitarra Udal Euskaltegian izango da gaur arratsaldean. Ikasle talde batek Jasone Osororen Tentazioak liburua landu du klasean eta gaur lanaren egilearekin berarekin arituko dira hizketan. Ekitaldia euskaltegiko ikasleentzat da eta arratsaldeko 19:00etan izango da. □

## 'Denis te llama' filmea Aek-n bihar

AEK-k bideo-foruma antolatu du biharko eta *Denis te llama* pelikula botako dute. Bizitza eta maitasunari buruzko komedia horrek Urrezko kamara sariaren aipamen berezia jaso zuen Cannes-en. Bideo-foruma, euskaltegian da, ostiralean, 19:30etan. □

### 3/4 PLATAFORMA

## Kontzentrazioa gaur

HIRULAUDEN plataformak kontzentrazioa egingo du gaur kartzela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten preso hernaniarren askatasuna eskatzeko. Kontzentrazioa, Plaza Berrian egingo da, arratsaldeko 19:00etan. □

### ZABOR BILTZEA

## Zabor berezia biltzeko eguna gaur, ferian

SAN Markoseko furgoneta ferian izango da gaur zabor bereziak biltzeko. Zabor biltzeta 16:30etatik 19:30etara. □

Hernaniko  
Kronika

Interneten  
[www.dobera.com](http://www.dobera.com)

**ZINGI-ZANGA**

Jatetxea

Eguneko menuak.  
Ostiral eta  
larunbatetan afariak  
ematen ditugu.  
Florida 54  
Tel: 943 33 03 97

MARI FER

ARRANDEGIA



Nagusia 36  
943 55 04 89

Orkolaga 17  
943 55 27 41

OIALUME ZAR  
SAGARDOTEGIA



Asteartetik  
larunbatera  
zabalik.  
943 55 29 38  
OIALUME AUZO



**GALARRETA FRONTOIA**

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AUERRERA ERREMONTE JAIALDIA:**

1. partidua: Iturralde - Etxeberria II / Matxin II -Lander
- Txapelketako finalerdia:** Ezkurra - Urko / Altuna I - Etxabe
3. partidua: Iñigo - A.Lekunberri / Bereziartua - Lizaso
4. partidua: Sarasua - Aizpurua II / Zeberio - Mendizabal

## ERREMONTA -BI BITAKO FINALAURREKOA GAUR GALARRETAN

# Jokin Etxabe: "Koteto Ezkurrari ez diogu jokuan sartzen utzi behar"

Lehen finalaurrekoa 40-39 galdu zuten Altuna II-Etxabek Ezkurra-Urkoren kontra ■ Jokin Etxabe gustora dago hartu duen joko puntu eta konfiantzarekin.


ERREMONTEN bi bitako txapelketako azken finalaurrekoa jokatu da gaur Galarretan. Jokin Etxabe Hernanin bizi den azkoitiarrak Kronikari esan dionez, partidu oso zaila izango da gaurkoa, *Koteto Ezkurra* joko puntu oso onean dagoelako. Altuna eta biak Ezkurra ebitatu eta Urko jokuan sartu araztera joango dira "saketik bertatik Ezkurra ebitatzen saiatuko gara eta ea Urko nerbioa xamar jartzen den". Partidua jaialdiko bigarrena izango da, arratsaldeko 16:00etatik aurrera Galarretan.

Jokin Etxabe berak dio txapelketa ez zuela erabat ondo hasi, deskonfiantza pixka batekin ekin ziola. Azken partiduetan, ordea, maila ona eman du eta finalaurreko lehenengo partiduan dotore aritu zen Euskalen, nahiz eta partidua galdu.

### Bi aldiz txapeldun

Etxabek baditu bi txapela bi bitara: 1996an Elizalderekin eta 1997an Altuna IIarekin. Hirugarrenarekin amesten ote duen galde-tuta ez du aurreragi joan nahi "lehenengo gaurko partidua irabazi behar dugu eta gero pentsatuko dugu txapelean" dio.

Bestalde, beste finalistak erabakita daude dagoeneko. Altuna I-Eizagirik arazo haundiegirik gabe irabazi dituzte finalaurreko bi partidua Inigo-Lizoren kontra (40-25 eta 40-27) eta gaur pasatzen den bikotearen kontra jokatu dute finala. □



Jokin Etxabe pelota astintzen, txapelketako partidu batean.

## MAHAI TENISA

### Mitxelena Espainiko 12 onenetan

AITOR Mitxelena mahai tenis jokalaria Estatuko 12 onenek jokatzeko duten txapelketarako sailkatu da, aurten bigarren urtez segidan. Mitxelena iaz 10garren gelditu zen *Top* horretan.

Mitxelenaz gain denboraldi hasieratik Hernani-Eason jokatzeko ari den Xabi Panadera katalana ere sartu da *Top Estalean* horretan, 21 urtez azpi-

ko kategorian. Aitor Valverde eta Erik Diez ere izan ziren torneo horretan, baina, atzera gelditu ziren.

Bestalde, asteburu honetan Open Juniorreko partidua jokatu ziren Hernanin. Iñaki Zabaleta donostiarrak irabazi zuen kiroldegian jokatu zen txapelketa hori. Baina, sailkapen orokorrean, Zuhaitz Gurrutxaga jarri da aurrea. □

## BOLA - ERREGULARITATEA

### Hernaniarrak ondo Ategorrietan

ERREGULARITATE txapelketako tiraldia izan zen igandean, Ategorrietan, eta hernaniarrak ondo ibili ziren. Nikolas Osabak 4garren egin zuen eta Joxe Ugaldek 5garren, biek 47na brilarekin. Hirugarren her-

naniarra Antonio Miner izan zen, 45ekin. Sailkapenean, Alustiza zeraindarra dijoa aurrea eta aurreneko hernaniarra Joxe Ugalde da, 9 briletara; bigarren Burugain, eta hirugarren Ibon Miner. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
 ► Udaltzaingoa: 943 333288  
 ► DYA: 943 464622  
 ► Autobusak: 943 556662  
 ► Anbulatorioa: 943 006666  
 ► Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087  
 ► Gueuz: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

### IRAGARKI MERKEAK

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAren kombokatoria. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantziak. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: 943 44 45 09

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: 943 44 45 09

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdiarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdiarako. ADOZ: 943 444509

BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdiarako. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Txofer, elektrikista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: 943 444509

## ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO EMAITZAK



Urumea eta Elizatzoko futbol taldeak Karabelen, partiduko deskantsuan.

Futbolsala	Taldeak	Emaitza	Futbola	Taldeak	Emaitza	Pelota	Taldeak	Emaitza
Infantilak	Langile-H. Ametsa	6-1	Alebinak	Urum ea B-Elizatzoko B	0-3	Infanti	Hernani Oñate EK	18-9
Benja	Urum ea-Elizatzoko A	2-1	Alebinak	Im aculada-Urum ea A	5-0	Infanti	Lizardi Bello Hernani	18-4
Benja	Langile C-Langile A	1-2	Alebinak	Langile A-Elizatzoko A	2-4	Erregularia		
Benja	Langile B-Elizatzoko B	0-3	Alebinak	Langile B-Langile C	1-5	Benja	Elizatzoko A-Urum ea	0-4
Saskibaloia			Alebinak	Urum ea-Elizatzoko	1-4	Benja	Langile A-Langile B	1-1
Infantilak	Langile-A Ikapeta	42-41				Benja	Elizatzoko B-Im aculada	2-1

# BENITO

## Lertxundi

# Hernanin

## otsailaren 15ean

HERNANIKO KIROLDEGIAN • Gaueko 10:30ean

Antolatzailea: **dobera** EUSKARA ELKARTEA Hernaniko Dobera Euskara Elkarte

Sarrerak salgai

**HERNANI:** Kitto taberna, Oindi taberna eta Lete liburudenda

**DONOSTIA:** Frudisk eta Bilintx